

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Azal melodikoagoa eta anitzagoa aldatu du piztiak



Artefactos mágicos.
Lobo Eléctrico.
Autoekoizpena.
Iraupena: 37'05".
5 euro (CD) 12 euro (LP).

OSO URRUN dagoen lurraldeko negua pasa da jada eta otso elektrikoa lozrorrotik irten da gainean azal berria duela. Aldatuta dator, Guantxe bateria jotzailea taldean erabat finkatu delako eta bestelako sonoritate eta estiloak lantzen hasi direlako. Iraganean izan zuten joera, hau da, Stoogesen eromena, AC-DCren rock itsaskorra eta Black Sabbathen intentsitate pausatua ageri dira, baina lehen baino askoz gutxiago. Horren ordez, bestelako bidezidorrak

ikuskatzen hasi dira: 60ko garage-popa, TSOOLen giro sakonak, Zen Guerrillaren pareko rock-and-roll eskizoa eta *Retorno al planeta polimorfia* moduko hitak, besteak beste. Hitzetara dagokionez, Santiren imaginarioak ez dauka parekorik. Bestalde, nabarmendu beharra dago lana CDan ere kaleratu badute ere, biniloaren aurkezpena izugarri landu dutela.

www.myspace.com/loboelectrico

Santi - Lobo Eléctrico

«Ez gaude ohituta estudioetara, gu batez ere zuzeneko taldea gara»

Disko hau zuen kabuz argitaratzeaz gain, zuek arduratu zarete grabazioaren ekoizpenaz. Zaila da buruan duzuen soinua grabazioan lortzea?

Zigilu propioa sortu dugu, hobe delako guztia geuk egitea. Grabazioei dagokienez, ez gaude ohituta estudioetara, gu batez ere zuzeneko taldea garelako. Baina taldearekin esperimentatu nahi izaten dugu eta soinuarekin ere ahalegina egin dugu; horretaz arduratu da Guantxe.

Zuen lehenengo diskoarekin eta singleekin alderatuta, musika ildo dezente aldatu duzue. Hau melodikoagoa dela esango nuke...

Bai, egia da aldaketa handia dagoela, nahiz eta gu ez garen horretaz hainbeste ohartzen. Denbora asko igaro da eta azken finean, gu mutanteak gara, etengabe mutetzen ari gara. Melodiari dagokionez, uste dut arrazoia daukazula, melodiak landuago daude orain, baina estiloetan nahasketa handia dago, gu ere bakoitza adar batekoak garelako.



Zer gertatuko da 2013an, Lobo Eléctricorekin erabat lotuta dagoen zenbakidun urtean?

Jakin nahiko nuke! [barrez]. Orain dela urte asko Jorge eta biok Brasi-

len izan ginenean 2013arekin obsesionatzen hasi nintzen. Gero jakin nuen mayen profezia baten arabera, 2013ko abenduan beraien historia bukatu eta zerbait berria hasiko dela. Zer etorriko den jakin-minez nago.

Ganesha dago diskoaren azalean...

Bai, oso jaingo famatua da Indian, eta norbaitek negozio berri bat hasi behar badu opariak egiten dizkiote. Guk ere antzeko zerbait egin dugu, gure "gailu magikoek" aurki ditzaketan oztupoak suntsitzeko.

Diskoaren presentazioa asko landu duzue, bideoklipa ere bai... Profesionalizatu zarete, serio hartu duzue taldea?

Itxura hori hartu al dugu? [barrez]. Ez dut uste profesionalagoak garenik, baina ahalegintzen gara serioago hartzen. Hala ere, batzuetan desastre hutsa gara, eta gorabehera horiek ez baleude, gure esentzia galduko genuke. ■